



PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO FORMAZIOA ON-LINE EMAITZEN TXOSTENA:

**“0-2 URTE BITARTEKO SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIEI GURASOTASUN GAKOAK
KOMUNIKATZEKO IKASTAROA”**



ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO FORMAZIOA ON-LINE EMAITZEN TXOSTENA:

“0-2 URTE BITARTEKO SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIEI GURASOTASUN GAKOAK KOMUNIKATZEKO IKASTAROA”

1. SARRERA

Ondoren aurkezten den proiektu honek jarraipena eman nahi dio, *Etxadik* (*Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa*), azken urteetan garatu duen ikerkuntza eta aplikaturiko zerbitzuen lanari (www.etxadi.org).

Orain arteko ibilbidean, hainbat urrats eman dira eremu hauetan. Horrela, ikerketa eremuko aztergai nagusia, familia-testuinguruak garapen psikologikoan izan dezakeen eraginaren arloa izan da. Aplikazioaren eremuan, berriz, ekinbide anitz garatu dira prebentzio eta formazio ikuspuntu batetik, familiaren esku-hartzeari zuzendua.

Kasu honetan, profesionalei bideratutako *on-line* formazio bat jarri da martxan, bestetan 0-2 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei zuzendutakoa ere izan dena. Ikastaro hauen helburua, profesionalei eta familiei proiektu paraleloekin informazio teoriko-praktiko bat luzatzea da. Profesionalei bideratutako ikastaroan, baliabide egokiak eskaintzen dira, beraien eguneroko lan esparruan, familiarekin lan egiterakoan, azaltzen zaizkien arazoei aurre hartzeko (prebenitzeko) eta aurre egiteko abilezia eskuratu dezaten. Familien kasuan, aldiz, beraien seme-alabekin duten harremanean sortu daitezkeen arazoei aurre hartzeko estrategiak eskaintzen dira. Informazio hori, *gurasotasunaren* irizpide pean eta modu erraz eta praktiko batean helarazten zaie familia nahiz profesionalei.

Hortaz, ekinbide honekin, *on-line* bitartekoa garatu eta zabaldu nahi izan da, aurrez-aurrekoarekin alderatuta desberdina eta osagarria dena. Honako hau giltzarri izan daiteke, edukien eskuragarritasuna errazteko eta modu erraz batean arrisku maila baxua duten familiarekin lehen mailako prebentziorako gurasotasuna irizpideak zeintzuk diren agertzeko. Finean, profesionalei beraien egunerokoan familiarekin lan egiteko erabilgarriak izango zaizkien baliabideak eskaini nahi zaizkie.



2. HELBURU OROKORRAK

- Familiekin Lehen Mailako Prebentzio batetik lan egiten duten profesionalen konpetentziak garatzea, programak burutzeko edota daudenak osagarritzeko.
- Hautatutako profesionala, *gurasotasunaren* irizpideak oinarri izanda haur hezkuntzako gai praktikoetan gaitu familiekin eguneroko komunikazioa errazteko.
- Profesionalak familiekin batera tresna orokorrez hornitu, hazkuntza eta hezkuntza gaietan modu paralelo batean lan egiteko.
- Profesionalei, adin txikikoen garapeneko atal desberdinak indartzeko eta aurreratzeko estrategia praktikoak eskaini, familiei helarazi ahal izateko.
- Familiekin egunerokotasunean lan egiteko baliabide teoriko praktikoak bereganatzea.

3. HELBURU ZEHAZTAK

- Formazioa, familia esku-hartzean eta oro har, haurtzaroaren garapen psikologikoaren eremuan profesionalak dituzten beharrezko antzemateko eta ikerketak gauzatzeko baliabide bezala erabiltzea.
- Tresna berri honen eraginkortasuna hautatuko profesional talde honetan ebaluatzea.
- Analizatu, eta ondoren, plataformaren erabilera nahiz edukiak gai, adina eta familia mota desberdinetara orokortzea.



4. METODOLOGIA

On-line ikastaroak, proiektua martxan jarri eta gauzatzeko orduan hainbat fase biltzen ditu:

1. Hasierako publizitateaz geroztik 200 erabiltzailek eman dute izena.
2. Taldeak eratzeko, zorizko laginketa bat egin da (baldintzarik gabe). Bost talde sortu dira. Lehendabiziko bi taldeek (40 profesionalak osatutakoak) hartu duten parte profesionaleri bideratutako *on-line* formazio honetako lehen fase honetan (1. Eranskina).
3. *Etxadi*ko web-orrialdean profesionalen formaziorako gune bat izan da eta bertara sartzeko profesionalak identifikaziorako erabiltzaile eta pasahitz bat izan dute.
4. Erabiltzaileek hasiera ematen diote formazioari. Formazio bera atal desberdinak izan ditu:
 - A. Derrigorrezkoak izan diren bi aurrez-aurreko bilkura, bata ikastaroari hasieran eta bestea, ikastaro amaieran. Horrez gain, foro bat ere izan da ikastaroan zehar, zeinetan parte hartzea derrigorrezkoa izan den (gutxienez bitan parte hartu behar izan dute).
 - B. Ikasleak, profil desberdinetako profesionalak izanda (1. Eranskina), ondoren agertzen den egitura orokorra oinarri izanik burutu dute ikastaroa:
 1. Aurretiko ebaluazio bat burutu behar izan dute profesionalak (auto-ebaluazioa), aurkeztutako gaiak hausnarketa propioa egiteko.
 2. Proposatutako gaien inguruko etengabeko prestakuntza burutu dute euskarri informatiko honen bidez. Modu horretan, aplikatutako teknologia berriak hezkuntza testuinguruan modu dinamiko eta elkarreragilean barnebiltzeko aukera ere eman delarik:
 - Ikastaroaren egitura eta metodologia *on-line* izan arren, aurrez-aurreko bi bilkura eskaini eta ezarri dira (ikastaro hasieran eta amaieran) ikasle eta tutoreen arteko harremana estutzeko asmoz. Baita, arazo birtualen ondorioz eman daitezkeen arazoak saihestu edo murrizteko edota bestelako helburu hezitzaile eta ebaluaziozkoak gainditzeko.



- Formazio erraztu duen barne-komunikazioaren erabilera eman da (*on-line*): foroa eta tutoreekin komunikatzeko zerbitzua (mezu bidez).
- Ikaskuntza errazten duten bideo, web-orrialdeak eta beste motatako fitxategiak eskaini dira.

C. Ikasleei etengabeko ebaluazio prozesu bat ezarri zaie, *on-line* bidez egin behar izan dituzten jardueren bitartez.

5. Behin ikasleek ikastaroa amaituta, landutako gaiak egoki gainditu dituztenaren ziurtagiri bat eman zaie, hau da, ikastaroa amaitu dutenaren titulua.

6. Gogobetetasun galdetegi baten bidez ikastaroaren ebaluaziorako prozedura ezarri da. Profesionalek galdetegi hau bete behar izan dute ziurtagiria jaso aurretik eta behin ikastaroa amaituta. Galdetegi hauen emaitzak ondorengo orrialdeetan azaltzen dira.

5. PROPOSATUTAKO GAITEGIA

Gaiak burutzeak eta beraz, ikastaroa gainditzeak, erabiltzaile bakoitzari 90 ordu teoriko praktiko suposatu dizkio gutxienez.

Gaien blokeak, 2. Eranskinean azaltzen dira.



6. EMAITZAK

DATUAK

Ikastaroan parte hartu duten 80 pertsonetatik (2012-2013), 70 pertsonek amaitu dute ikastaroa (3. Eranskina), % 87'5k hain zuzen.

- Ikastaroa burutzeko aukeratutako hizkuntza:
 - Euskara: 9 pertsona (% 11'25)
 - Gaztelania: 71 pertsona (% 88'7)
- Generoa:
 - Gizonezkoak: 3 pertsona (% 3'75)
 - Emakumezkoak: 77 pertsona (% 96'25)
- 1 eta 2. Taldea osotzen duten pertsonen probintziaren jatorria:
 - Bizkaia: 32 pertsona (% 40)
 - Gipuzkoa: 34 pertsona (% 42'5)
 - Araba: 14 pertsona (% 17'5)
- Egungo egoera:
 - Jardunean: 78 pertsona (% 97'5)
 - Langabezian: 2 pertsona (% 2'5)



Jarraian, jasotako 70 galdegegia horien analisisa egiten da. Bertan, erabilitaile guztiek item bakoitzean erantzundakoaren batez bestekoa egiten da. Batez bestekoa 4ko balioaren gainekoa da: (4. Eranskina: adierazpide grafikoa)

GALDERA	4ko BALIOAREN GAINEKO BALORAZIOA
1.- Edukiek nire interesei egokiro erantzuten diote.	2'95
2.- Edukiak argi azaltzen dira.	3'7
3.- Erabilitako hiztegia eta adierazpenak argiak eta ulerterrazak iruditzen zaizkit.	3'8
4.- Proposatzen diren jarduerak erabilgarriak iruditu zaizkit.	2'9
5.- Proposatzen diren adibideak eta praktikak errealitatera hurbiltzen direla iruditzen zait.	3'3
6. Ebaluazio sistema, proposatutako edukiei egokitzen zaiola iruditzen zait.	3'3
7. Profesionalek nire eskaerak, zalantzak edo galderak (izatekotan) garaiz eta modu ulergarrian erantzun dituzte, mezu labur edo foroaren bitartez.	3'6
8.- Foroa tresna erabilgarria iruditu zait kideekin eta tutoreekin eztabaidatzeko.	3
9. - Oro har, uste dut profesionalen prestakuntzarako formazio sistema egokia dela hau.	3'1
10. - Plataforma informatikoa erabilerraza iruditu zait.	3'9
11. - Ikastaroa burutzeko izan dugun denbora egokia iruditu zait.	3'7
12. - IKASTAROAREN BALORAZIO OROKORRA	3'17



Ondoren, parte hartu duten profesional batzuek emandako erantzun kualitatiboak multzokatu dira. Galdetegiaren parte dira ondorengo adierazpenak. Profesionalek ikastaroaren alderdi zehatzei buruz dituzten iritziak jasotzen dira jarraian:

● **IKASTAROAZ GEHIEN GUSTATU ZAIENA:**

- Gaitegiko azken gaiak praktikoak direlako **(5)**
- Edukiak eta gomendatutako artikulak, materialak eta baliabideak (bideoak, loturak...) erabilgarriak izan dira **(34)**
- Edukiak lan eremuan jorratu ahal izan dira **(14)**
- *On-line* ereduak, ikastaroa, edozein momentutan egitea ahalbidetu du **(17)**
- Plataforma erabilerraza izan da eta edukiak argiak eta zuzenak **(34)**
- Foroa **(5)**
- Elebiduna izatea **(2)**
- Hasierako bilkura eta azken bilkura **(17)**

● **IKASTAROAZ GUTXIEN GUSTATU ZAIENA:**

- Ebaluazioa erraza izan da **(2)**
- Edukiak ezin jaitsi edo kopiatzea **(5)**
- Foroa dinamikoa izanik, honen bidez kasuak ezin ebatzi izana **(7)**
- Oinarrizko edukiak dira **(10)**
- Ikastaroa burutzeko denbora gehiegi **(3)**
- Ikastaroa burutzeko denbora gutxi **(2)**
- Forora sartzea derrigorrezkoa izatea **(8)**
- Aurrez-aurreko bilkura gehiago ez eskaintzea **(2)**
- Ezer ere ez negatiboa izan **(5)**
- Teoria gehiagoren beharra **(1)**

● **OHARRAK/PROPOSAMENAK:**

- **8** pertsonen, beste adin tarte batzuetara bideratutako ikastaroak egitearen aukera proposatzen dute
- **13** pertsonen, *on-line* ereduak proposatzen dute, arrisku maila altuko familiekin edota arriskuan dauden adin txikikoekin lan egiten duten profesionalen bideratuta ikastaroak burutzeko
- **2** pertsonen, foroa gaika landu beharko litzatekeela uste dute foroa egituratuago egoteko
- **3** pertsonen, aurrez-aurreko bilkuraren bat gehiago egon litekeela uste dute
- **2** pertsonen, aurrez-aurrekoak derrigorrezkoak ez izatea eskatzen dute
- Pertsona **1**ek uste du ikastaroa bera gida batean argitaratu daitekeela



Hori dela eta, laburbilduta, honakoa ondorioztatu daiteke:

- Emaitzek adierazten dute, ikasle taldeek, **gehien balioetsitako lau elementuak** honakoa direla:
 - Plataforma informatikoaren erraztasuna eta praktikotasuna (10.itema) **3,9**
 - Edukiak denborara egokitu izana (11.itema) **3,7**
 - Adierazpideen argitasuna, erabilitako hizkuntza eta ikasleen interesari egokitua (3.itema) **3,8**
 - Edukien argitasuna (2.itema) **3,7**
- Analisiek adierazten dute, profesionalek ikastaroa **batez bestekoaren gainerik** balioetsi dutela, gutxien balioetsitako itemak kontutan hartuta (1 eta 4. itemak). Hau da, puntuazio gutxien jaso duten itemak ere batez bestekoaren gainerik kokatzen dira. Item hauek puntuazio baxuagoa lortu izatearen arrazoiak profesionalen profila izan daiteke, izan ere, hauek arrisku maila altuko familiekin lan egiten dute.
- Profesionalek egindako ekarpenak, eta aurretiaz azaldutakoak, ondorengo esperientziak hobetzeko izan daitezke.